

NOLA EBALUATZEN DITUGU AZTERKETAK?

Aztertzaile fidagarri eta ondo prestatuak

IVAPek 150 aztertzailetik gora ditu: hainbat erakundetako teknikariak eta euskaltegi askotako irakasleak; den-denak eskarmentu handiko ebaluatzaileak.

Aztertzaile bakoitzak hizkuntza-eskakizun jakin bateko azterketak ebaluatzen ditu beti, IVAPek ezarritako irizpideen arabera.

Prestakuntza-saioak aztertzaileentzat

IVAPeko Ebaluazio Arloko teknikariek urtean zehar prestakuntza-saioak antolatzen dituzte aztertzaileek zalantzak argitu, iradokizunak egin eta elkarren artean ebaluaziorako irizpide bateratuak finkatzeko.

Idazmen-probak anonimoak dira.

Idazmen-proba guztiak anonimoak dira, eta ez dute azterketarien daturik. Azterketariak kode baten bidez identifikatzen dira.

Azterketa bakoitza, gutxienez, bi aztertzailek ebaluatzen dute beti.

Idatzizko azterketa amaitzen denean, irakurgailu optikoz zuzentzen dira irakurmeneko ariketak.

Idazmen-probako azterketa bakoitza, gutxienez, bi aztertzailek ebaluatzen dute beti: nor bere kasa ebaluatzen du (beste aztertzailearen berririk gabe), IVAPek zehaztutako parametro eta irizpideen arabera. Ondoren, emaitzak aplikazio informatiko batean sartzen dituzte.

Aztertzaile bien emaitza bat etorri gero, puntuazioen batezbestekoa egiten da.

Aztertzaileen emaitza orokorra bat ez badator, hirugarren aztertzaile batek ebaluatzen du beti.

Ebaluazio-irizpide berberekin aritu arren, baliteke bi aztertzaileek jarritako emaitzan desadostasuna egotea. Hala denean, hirugarren aztertzaile batek ebaluatzen du azterketa.

Horrez gain, gainditzeko mugatik gertu dauden azterketa guztiak IVAPeko Ebaluazio Arloko teknikariek berraztertzen dituzte ofizioz. Beraz, zenbait azterketa lauzpabost aldiz ebaluatzen dira.